

ERREPORTAJEA BOTILOIAREN EGUNGO EGOERA · GEHIGARRIA KILIBARREN
KIROLA XI. KARAKATERA IGOERAREN SAILKAPENA

BARREREN

ASTEKARIA

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A · 2004ko azaroaren 26a/XII. urtea/510. zkia



HIESAREN PREBENTZIO ASTEA AZAROAREN 27TIK ABENDUAREN 5ERA

"Izan positiboa"

"Ez kortasunak adimenarekin du zerikusia, baikortasunak, berriz, borondatearekin"
(Antonio Gramsci)

HARZUBI JATETXEA

SANTA LUZIAKO MENUA
abenduak 10 eta 11



- * Urdaiazpiko iberikoa
 - * Zainzuriak 2 saltsekin
 - * Baratxuri freskoa eta perretxikoen nahastura
 - * Bieira labean
 - * 1/2 rapea erreta
 - * Txuletoia zatituta
 - * Etxeko postrea
- (Ogia, etxeko ardoa, ura eta kafea)

Abenduak 10, ostinala
STREETEASE

Abenduak 11, larunbata
DRAG QUEEN-a

Olaso Industrialdea · Olasope, 2 · Tel. 943 74 12 44 · 20870 ELGOIBAR · (Gipuzkoa)

2005 Elgoibar, Alzola eta Mendaro eko Gida Komertziala



BARREN ASTEKARIA



Azkenengo gidan agertu ez bazinen edo zure negozioko telefonoa edo helbidea aldatu bada, deitu **943 74 37 04** telefonora.

PARTIKULARREN TELEFONOekin!



Segundakoa

Biolentzia politikoak baino 10 aldiz biktima gehiago eragiten ditu etxe barruko indarkeriak, baina hala ere “segundako” gaia da. Ia-ia ohitu egin gara titular morbosoa irakurtzera eta halako berri odoltsuak entzutera, pilo bat kaleratzen dira egunero, baina arazoari aurre egiteko ez dago inoren planik, ez eta su-etenik ere. Politika da komunikabide gehienetan jaun eta jabe, eta gainontzeko gaiak bigarren mailakoak dira.

Atzo Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna izan zela eta datu izugarriak plazaratu zituzten. Biolentzia mota horrek minbiziak eta trafiko-istripuek baino heriotza gehiago eragiten ditu emakumeen artean, eta munduan hiltzen dituzten hamar

nesketatik zazpi bere bikotekideak edo bikote ohiak akabatzen du.

Gai honetan ere globalizazioa nagusi da: ez dago mugarik, berdin da herrialde bat pobrea ala aberatsa den, biztanleak zuriak ala beltzak diren, iparraldekoak ala hegoaldekoak. Euskal Herrian azken urtebetean sei emakumezko hil dituzte. Datua beldurgarria da benetan: munduko emakumeen %20-50ek tratu txarrak pairatu dituzte bikotekidearen edo familiartekoren baten aldetik. Baina isilpean gordetzen den gaia da, “etxe barrukoa”. Mendebaldeko herrialdeetan (ustezko mundu garatuan) hamar biktimetatik bakarrak jartzen du salaketa. Beste batzuetan ez dakite salagarria denik ere. Tunel beltz honetan ez da bukaerako argirik ikusten.

Montse Arregi



Euskarazko Kazetaritzaren Kongresua

Azaroaren 9tik 12ra Euskalduna Jauregian izan nintzen. Euskararen eta euskarazko kazetaritzaren inguruko hainbat eragile, publiko nahiz pribatuak, ikus-entzunezkoak, paper euskarrikoak eta Internet bidezkoak. Karmelo Landak kazetaritzaren eta literaturaren uztarduraz hitz egin zuen, batak eta besteak elkarren osagarri izan behar dutela azaltzeko. Arrosa Irrati Ekoizpen Zentroaren berri eman zuen Irantzu Jauregik, Le Journalen zailtasunak ekarri zituen Hur Gorostiagak...

EAetik kanpoko euskal lurretan, euskarazko hedabideak eta euskara, euskal mundua oro har, egoera larrian daudela banekien. Banekien, baina Gipuzkoatik begiratzen nien. Irantzu eta Hur hizketan ari zirelarik Nafarroara eta Iparraldera bidaiatu ginen han bildu ginenok. Logi Bergmannek Islandiako berri eman zigun. Liluratu egin ninduen bere hizkuntzarekiko eta herriarekiko erakutsi zuen maitasunak, zailtasun orenen gainetik.

Eta karitatea ere aipatu zen. Han eta hemen entzun dut euskarazko produktuak gure hizkuntza gutxitua gal ez dadin kontsumitzen direla. Euskarari hauskorra bailtzan penaz begiratzen diote askok. Euskarak bizi behar du eta lagun diezaiogun. Lagun diezaiogun bai, baina ez pena ematen digulako. Alegia, nik Berria erosten dut, euskaraz bizi naizelako eta besteak beste gaztelania arrotzaren aldean euskara etxekoa dudalako. Baina orenen gainetik nik komunikatzeko produktu bat erosten dut, ez pena ematen didalako, informatu nahi dudalako baizik. Euskara kultura ondasun sinboliko gisa gordetzen badugu zalantzarik ez dut galdu edo hizkuntza hila bailtzan liburuetan betiketuko dela. Euskarak kalean, administrazioan, eskoletan, politikan bizi behar du. Urtetan iraun duen hizkuntza bat dugu esku artean eta hel diezaiogun bere aberastasun osoan. Oztopoak oztopo, euskarazko kazetaritza bizirik dago, eta euskarazko mundua ere bai.

Ainhoa Lendinez

asteko notiziaria

Kexak.....5

motZ MotZ.....8

gehigarria13

kiROLak.....20

EUSKARA ERABILTZEKO AUKERAK ESKAINI

Zergatik da horren garrantzitsua osasun etxea bezelako zerbitzu batetan euskara erabiltzeko planak garatzea?

Azterketa soziolinguistikoetan agertzen den egoerak argi erakusten du: euskararen erabilera ez da handitzen honen ezagutza handitzen den neurrian. Erabilera handitzen da euskara erabiltzeko aukerak handituz doazen neurrian. Apostua beraz, gizarteko gero eta ingurune gehiagotan erabiltzeko aukerak gauzatzea da. Elgoibarren ingurune garrantzitsua da osasun etxea, euskaldunok zerbitzu horren beharra dugunean euskaraz egiteko aukera izan dezagun.

Kontu hauen berri gehiago jakiteko etorri abenduaren 2an Kultur Etxean, "HIZKUNTZA ESKUBIDEEN EGOERA OSASUN ZENTROETAN" izenburuarekin antolatatu den mahai ingurura.

Juan Mari Mendizabal Alberdi
EHNA: J5658645R

ESTATU POLIZIALARI EZ!

- Dakizuen bezala, duela aste batzuk herri hau "demokratikoki" gobernatzen saiatzen diren "demokratek", larunbatetan Elgoibarrera etortzen diren gazteen kontrako legea sortu zuten. Larunbat gutxi batzutan emaitzak argi geratu dira.

- Larunbatero, hiruko taldeetan eta uniformeaz jantzita, porrak eskuan hartuz, beraien ibilgailuetan herria zeharkatzen dute. Gazteei errieta egiten diete, taldetan bilduta egoteagatik bakarrik.

- Kontuan izan behar da honelako ekintzak Francoren diktadura garaitik ez zirela gertatzen.

- Hau guztia, Elgoibarko periferian, uniformeaz jantzitakoan (kasu honetan beltz koloreko uniformeak) furgonak modu estrategikoan kokatuta dauden bitartean gertatzen da. Uniformatu hauek pistolak, eskopetak, porrak, peloterak... izaten dituzte, eta agindua jasotzen duten momentuan lanean hasteko prest egoten dira.

- Kontuan izan behar da, baita ere, behin baino gehiagotan hasi direla pistola hauekin tiroka. Gogora dezagun, errepidean izorratutako auto bati laguntzeko geratu eta garondoa tiroa jaso zuten Jose Atanesen kasua.

- Errepresio honen benetako arrazoiak ez dut ezagutzen, baina lege honen efektuak harrigarriak dira. Extasi pilulen kontsumoa bikoiztu egin da (droga hau merkea, eta lortzeko eta kontsumitzeko erraza da), eta herria poliziaz beteta dago.

- Errepresioa ez da irtenbidea.

- Osasuna eta anarkia, kamaradak!

Sergio Fernandez Picón
15383713

Urruzunoren begi ezkutua

Zori ona



Bob Marleyren kantak entzuten nabil hau idazten ari naizen bitartean. Aspaldi honetan zori onean pentsatzen dut sarritan; egunen

batean haren hatzak ukituko nauela pasadan, edo hatsa botako didala aurpegira, ondoan geldituko zaidala konpainian, zainduko nauela, zain dezadan eskatuko didala. Zorionaren gordailua izango naiz. Bob-en abestietako hitzek CD eta musika zintetatik ihes egingo dute, eta airean zehar hedatuko dira txoko guztiak betez: munduaren aldeko leloek mundua hartuko dute, mundua akatzeari utziko diogu, batak bestea akatzeari utzi ostean. "Could you be loved?" bezalako galderek eta "No, woman, no cry" bezalako aginduek ez dute zentzurik izango. Etorkezidun disdiratsuan debekuak debekatuta egongo dira, inposaketarik eza izango da inposaketa bakarra eta ez du inork jakingo ez jakitea zer den. Ez gaituzte manipulatu, ez dute gure geroa prezio merkean salduko, balioa ez da dirutan neurtuko, askatasuna esku-eskura izango dugu guztiok eta ez da muga zeharkagaitzik existituko. Mundua, bakar batzuen beharrean, guztiona izango da. Edo... agian guztiak berdin jarraituko du, okerrera.

Unai Villena

ASTEKARIA

BARREN

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12
Publizitatea:
☎ 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-posta:
barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.com/barren
ARGITARATZAILUA
Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILUA Elgoibarko Udala ZUZENDARIA Ainhoa Andonegi KAZETARIA Asier Orbea PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILUA Jaione Unanue ZUZENDAILUA Unai Villena KOLABORATZAILUAK Esther Gurrutxaga, Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Edurne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T..
AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Gertu Koop, E. TIRADA 4.275 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Euzko Jaurlaritzako Kultur Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



DANOBAT
DUPON



GOITI
GIZAKIA



ESTARTA
GIZAKIA

 KEXAK

◆ Bernardo Ezenarro kaleko bizilagun batek esan digunez, garajerako sarrera oztopatu egiten diete gaizki aparkatutako autoek: “Madalako parke aurrean jende askok autoa gaizki aparkatzen du, eta auto hauek gure garajerako sarbidea oztopatzen dute. Lehen pibote batzuk jarri zituzten jendeak ez zezan leku horretan aparkatu, baina berriz kendu dituztela dirudi, auto asko gaizki aparkatuta egoten baitira”.



◆ Herritar batek esan digunez, **Ikastolara bidean dauden zabor kontenedoreak leku txarrean daude**: "Ikastolara bidean, espaloi gainean bi zabor kontenedore daude, eta ez da batere leku ona. Ikastolako ikasle mordoia pasatzen da bertatik, IMHra doan jendea, Basarteko bizilagunak eta baita San Lorentzora pasiaratxo bat egitera joaten direnak ere bai. Espaloi gaina ez da tokirik aproposena. Ahal balitz, beste toki batean jarri beharko lirateke zabor kontenedore hauek".



◆ Emakume batek esan digunez, **Melitongo autobus geltokian ez dago markesinarik**: “Joan zen astean demaseko euria egin zuen, eta Mendarora joateko autobusaren zain nengoela, erabat busti nintzen. Aterkia neukan arren, eurijasa bortitz harekin, goitik behera blai eginda iritsi nintzen Mendarora. Hainbeste kostatzen al da markesina bat jartzea Melitongo errotondako autobus geltokian?”.


 TXALOAK


◆ Emakume batek **Udala txalotu nahi du Leku Ederreko parkea konpontzen hasi direlako eta bertan zeuden komunak kendu dituztelako**: “Ume asko ibiltzen dira Leku Ederreko parkean jolasten, eta berritzeko beharra zeukan. Gainera, komun horiek ez zeuden oso toki onean, umeei jolasteko leku asko kentzen baitzieten”.

◆ Mendizale batek **Morkaiko Elkartea txalotu nahi du, Karakatera igoera berriro ere, oso arrakastatsua izan zelako**: “Aurtengoan ere sekulako arrakasta izan du Karakatera igoerak, eta antolatzaileek txalo bat merezi dute. Partehartzaileak bikain aritu ziren, eta ikusleek ere ez zuten hutsik egin. Sekulako giro polita izan zen Karakate gainean”.

Urtebete geroago...



MILA PICAZA

Elgoibarko Gurutze
Gorriko idazkaria

"Alkoholagatik ez, baina drogak tartean direnean koadrila desagertu egiten da"

"Tren geltokiko istripuaren ondorengo hilabeteetan zapatu arratsaldeetako "botiloia"ren fenomenoak, edo honen ondorioak, jaitsi egin zirela igarri genuen, baina jaitsiera ez zen ikusgarria izan. Are gehiago, uda partetik honantz berriz berpizten ari dela nabaritu dugu. Hala ere, momentuz, ez da istripuaren aurretik bizi genuen egoera jasangaitza, alkohol eta droga intoxikazioak eta kristalekin sortutako ebakiak eguneroko ogia baitziren zapatueta. Eta beti adin txikikoak. Guregana iristen zirenen batezbesteko adina (14-17 urte bitartean) izugarri jaitsi zen".

Azken aldi indarkeriaren gorakadarekin larrituta daudela ohartarazi ditu Milak, "Koadrilen eta gaztetxoaren arteko borrokak areagotu egin dira. Lehen ere izango ziren agian, baina ez ziren gureganaino iristen. Aspaldian zapatuero borrokaren bat baino gehiago izan dugu, eta pare bat astebukaera izugarriak izan ziren. Gerora jakin genuen eskapatateak ere apurtu zituztela. Gainera, ez dira txantxetako borrokak eta labankadak ere izan dira tartean. Orain egoera pixka bat lasaitu da eta hala jarrai dezala".

Drogak

"Oso zaila da zer droga hartu dituzten antzematea, batez ere, droga nahasketa arriskutsuen ondorioz ailegatzen direnean. Alkohola beste substantzia batzuk baino errazago antzematen da, baina gezurra esaten dute eta zaila da ezer garbirik ateratzea". Fenomeno bitxi eta ohiko baten berri azaldu digu, "Alkoholagatik denean koadrila egoten da, baina drogak tarteko direnean desagertu egiten dira. Bakarrik aurkitzen dituzu, botata, lagunak desagertu egiten baitira. Ez dute nahi eurak nahastuko dituen arazorik. Arazo larria da, norbaitek aurkitu behar baitu guri deitzeko. Bestalde, datu bitxia da neska gehiago izaten ditugula (14-15 urtekoak). Ez da gehiago edaten dutelako, agian gehiago beldurtzen direlako baizik, eta lehenago deitzen dute. Egia esan, ez dakit arrazoia, ikerketa bat egiteko gaia litzateke".

ZEIN EGOERATAN DAGO ELGOIBARKO "BOTILOIA"?



MARTIN DOMINGUEZ

Ezenarro kaleko bizilaguna

"Gure etxepean taberna ireki zutenetik, jendeak ez du bertan edaten"

"Gure etxepean azken urte honetan "botiloia"ren fenomenoak gutxitu egin da. Hala ere, ez dut uste udaltzainek egiten duten lanarengatik izan denik. Badakit lan zaila dela, baina nire ustez, udaltzainek gehiago egin dezakete. Taberna berria ireki dute Bernardo Ezenarro kalean, eta kanpoan mahaiak jartzen dituzte. Jendea terrazan egoten da lasai-lasai zerbait hartzen, umeak jolasean egoten diren bitartean, eta hori izan da toki honetan "botiloia" gutxitzearen arrazoia.

Gure ingurunea askoz garbiago dago. Lehen botila apurtuak, plastikoak, edalontziak eta mota guztietako zikinkeria aurkitzen genuen portaletik ateratzen ginenean. Orain beharbada, beste lekuren baten edango dute. Ez dut uste "botiloia" bukatu denik, hori oso zaila da. Denok izan gara gazteak, eta gehiago edo gutxiago denok egin dugu. Tabernetako prezioei aurre egitea oso zaila da gazteentzat.

Bestalde, "botiloia"ri aurre egiteko alternatiba mordoa daudela esango nuke. Hala ere, pertsona batzuk, adin konkretu batean edatea eta tabernaz taberna ibiltzea besterik ez dute nahi. Horren aurrean ezin da ezer egin, baina alternatibak nahi dituenak, badauzka".

Tren istripua gertatu zenetik urte bete pasatu da, dagoeneko. Joan zen urteko irailaren 27an gertatu zen ezbeharra, eta Elgoibarko Udalak "botiloia"ren kontrako neurri gogorak hartu behar izan zituen. Herritarren kezak gero eta gehiago ziren, eta guztion bizi kalitatea hobetzearen aldeko apustua egin zuen Udalak. Kalean edatea debekatzen duen dekretu bat jarri zuen martxan, isunak gogortu zituen, eta larunbatero udaltzainen presentzia jarri zuen kalean, egoera kontrolatzeko.

Honekin batera, Elgoibarko, Irungo eta Berangoko egoeren ikerketa sakona egin da azken urte honetan, eta ateratako ondorioekin Eusko Jaurlaritzak "botiloia"ren arriskuak gutxitzeko plana diseinatuko du.

Gaurkoan, "botiloa"ren egoera zein den jakin nahi izan dugu, eta zeresana duten herriko lau lagunekin berba egin dugu.



AGUSTIN ALONSO

Lanbroa tabernako nagusia

"Larunbatetako giroa asko jaitsi da, eta botiloia apur bat gutxitu egin da"

"Azken urte honetan "botiloia" apur bat gutxitu dela esango nuke, baina oraindik ere jende gazteak edaten du kalean. Gure ingurunean, hala ere, ez da hainbeste ikusten, baina San Frantzisko kalea gaztez beteta egoten da. Ezin diete tabernetako prezioei aurre egin, eta horren alternatiba da "botiloia". Beti existitu da, eta beti existituko da.

Larunbatetako giroak bestalde, asko egin du behera Elgoibarren, baina tren istripua baino lehenagotik igarri genuen beherakada hau. Orokorrean herri guztietan gertatu da gauza bera. Azpeitia, Azkoitia, Durango eta Gernika aldean ere, tabernariak larrituta daude. Bizitzeko ohiturak aldatu egin dira, eta gaurko gazteak zaindu egiten dira. Bidaiatzea eta mendira joatea modan daude, eta denerako dirurik ez dago. Bizitza garesti dago, eta gazteek beren zaletasunen artean aukeratu egin behar dute. Soldatak ez dira igo, baina prezioek arlo guztietan gora egin dute.

Honetaz gain, "redadak" egiten hasi dira. Guretzako kaltegarria da, baina aldi berean, beharrezkoa ere bada".



JAVIER OÑEDERRA
Udaltzain burua

"Ordenantza betetzen hasi denetik, ez dira gazte taldeak nonahi edaten ikusten"

Javier Oñederra udaltzainburuaren aburuz, "bi eibartar gaztek iazko irailean izan zuten tren istripuaren ondoren, hasieran, zapatu batzutan nabarmendu zen gazte gutxiago zebilela kalean, orain berriz, istripuaren aurretik etortzen zen beste edo gehiago dator".

Ordenantza arautzailea irailean indarrean sartu zenetik hainbat gazte identifikatu ditu udaltzaingoak kalean edan edo "botiloia" delakoa egiteagatik, "momentuan ehunetik gora gazte identifikatuak izan dira motibo honegatik. Gazteei kalean edan ezin dela adieraztean, berriz, hauen erantzuna ez da ez ona ez txarra izan, ez baitugu istilurik izan. Ordenantza arautzailea betetzen hasi denetik, orain ez dira gazte taldeak nonahi edaten ikusten. Oraindaino tabernetatik ateratzen diren edariekin ez gara sartu, hala ere, kristalezkoak baino plastikozko edalontziak gehiago ikusten dira kalean eta garbitasunari buruz, berriz, domeka batzuk beste batzuk baino txukunagoak jaikitzen dira. Lehen aipatu bezala, "botiloia"ren kontuan, gaztea edo gazteak, alkoholdun edariekin daudela ikusten denean, edalontzi guztiak jaso, erretiratu eta gazteak identifikatu egiten dira. Adin txikikorik bada, etxera deitzen zaio, gurasoek jakin dezaten. Alkohol intoxikazioak ematen diren kasuetan gurasoek asko lagundu dezaketela uste dugu, seme-alabarekin udaltzaingo aurrean agerpen bat egingo balute".

Zapatu arratsaldeetan lau udaltzainek egiten dute lan Elgoibarko kale jendetsuetan, "2001. urtetik aurrera horrela egin izan dugu eta zapatu batzuetan errefortzatu egiten dugu kopurua. Noiznahi izan daiteke eta helburu konkretu bat betetzearren izaten da".

Indarkeria eta borrokak areagotua al diren galdetuta honakoa erantzun digu: "2001. urtean aldaketa bat nabaritu zen gazteen portaeran, borrokak ugaritu egin baitziren. Orain, berriz, asko gutxitu dira, eta hori batez ere, horretan aritzen diren talde batzuetako partaideak atzeman eta epaitegira eraman ditugulako izan da".

“Izan positiboa” lemapean ospatuko da aurten HIESaren prebentzio astea

Errotatxok antolatuta, azaroaren 27tik abenduaren 5era bitartean HIESarekin loturiko ekitaldi desberdinak izango dira

A benduaren 1a HIESaren Nazioarteko Eguna izanik, Errotatxo Elkarteak hainbat ekitaldi antolatu ditu aurtengoan ere. “Izan positiboa” lemapean, HIESarekin zerikusia duten hainbat ekitaldi izango dira azaroaren 27tik abenduaren 5era bitartean. Maider Gastesi, Errotatxoko partaideetako batek azaldu digu aurtengo lema aukeratzeko arrazoia: “Seropositiboek askotan positibo deitzen zaie, eta honekin batera, positibo hitzak esanahi baikorra dauka, borondatea edukitzea positiboa da, beraz, hitz joko polita irudituz zitzaien”.

Ekitaldiz beteriko astea

Bihar, azaroak 27, emango zaio hasiera beraz, HIESaren prebentzio asteari. Goizeko 11:00etan hasita, haurrentzako jaialdia izango da Plaza Handian. Atxutxiamaika Aisialdi Taldeko begiraleen laguntzaz, globoak puztu eta



haurrei emango zaizkie. Honetaz gain, mural bat egin eta beste hainbat ekintza burutuko dira. Igandean, azaroaren 28an, gure herrian HIES gaixotasunaz hil direnen oroimenezko omenaldia izango da Plaza Handian. 10 minutuko kontzentrazioa egingo da, ondoren, Haritz Dantza Taldeko dantzariak aureskua dantzatuko dute, txalaparta emanaldia izango da, hitzaldi bat eskainiko da eta mahai informatiboak jarriko dira.

Abenduaren 1ean, HIESaren Nazioarteko Egunean, mahai informatiboak jarriko dira, kondoiak eta panfletoak banatuko dira, eta arratsaldean 15 minutuko kontzentrazioa egingo da Plaza Handian. Honetaz gain, abenduaren 3an, “Marra zapaldu” antzerkia izango da Herriko Antzokian. Azkenik, azaroaren 27tik abenduaren 5era, Errotatxo Elkarteak egindako ibilbidea jasotzen duen argazki erakusketa izango da Kultur Etxean.

Udalak 2005erako proposatutako aurrekontuen gaineko prentsaurrekoa eman zuen Einbiou Herri Plataformak

Einbiou Herri Plataformako kideek, Udalak 2005. urterako proposatu dituen aurrekontuei buruzko prentsaurrekoa eskaini zuen asteartean, hilaren 23an. Beraien hitzetan, “inork ez daki ezer aurrekontuei buruz, ez zinegotziek (PNVkoek ere ziurrenik ez), ezta guk ere. Jakin dugu, bestalde, abenduan onartu nahi dituztela, beraz, PNV-EAko buruek beraien *rodilloa* aplikatuko dute berriz ere, beste gai batzuetan bezala”.

Ordenantza fiskalen igoerari buruz, ondorengo adierazi zuten: “Inork jakin gabe, inorekin eztabaidatu gabe, inoren proposamenak entzun gabe egin dute dena. Ura %9,57 igo dute, zabor bilketa



%17,38 eta kirol patronatua %5. Herriarrek ba al dakite zergatik igo diren hainbeste? Gure ustez, ez”.

Einbiouk, bestalde, herriarentzako garrantzitsuak diren beste hainbat gairi buruzko jakin-mina erakutsi zuen: “Jakin nahi dugu Sigmako babesleku fantasma

horrek zein kostu izango duen, edo Zaharren Egoitzarekin, eta Eguneko Zentroarekin zer egingo den, jakinda txiki geratu direla eta jende asko zain dagoela, edo 20 urte eta gero Inazio Iriondo euskal presoaren senideei bidaiak ordaintzeko zerbait emango zaien, edo trafikoa arazoa konpontzeko ikerketarik egiteko aurrekonturik dagoen...”.

Bukatzeko, Einbiou gai hauek guztiak eta aurrekontuak eztabaidatzeko edota proposamenak luzatzeko prest dagoela azaldu zuten: “Udal ez legitimoa izan arren, aurrekontuak elkarrizketa eta eztabaidaren bidez onar ditzala eskatzen diogu”.

Inazio Iriondok 20 urte beteko ditu kartzelan bihar, azaroak 27

Inazio Iriondo Garate euskal preso politiko Ielgoibartarrak, 20 urte beteko ditu espetxean bihar, azaroaren 27an. 1984. urtean espetxeratu zuten, 28 urte zituela. Beste hainbat herritarrekin batera, Polizia Nazionalak atxilotu zuen Inazio Iriondo. Komisariatik pasatu ostean, batzuk aske utzi zituzten, baina, Mikel Alberdi, Iñaki Jaio eta Inazio Iriondori 30 urteko kartzela zigorra ezarri zieten. Lehenengo biak aske daude dagoeneko, baina Inazio Iriondo oraindik preso dago. 1999. urtean bete zituen zigorraren hiru laurdenak, eta Espainiar Estatuko Legediaren arabera, aske egon beharko luke. Bestalde, 1. graduari bete



ditu 20 urteak, hau da, egunean 3 orduko patio denbora besterik ez dauka. Honetaz gain, Kazetaritza ikasketak egin ezinda dabil, presoek Euskal Herriko Unibertsitatean ikastea debekatu zutenetik.

Espetxe desberdinetan

20 urte hauetan, Inazio Iriondok espetxe desberdinak ezagutu ditu. 1984ko abenduaren 7an Carabanchelen espetxeratu zuten. Gerora, Alcalara eraman zuten 1985eko urtarrilera arte. 1988ko azarora arte Herreran egon zen, eta 2000ko maiatzetik Cáceres II espetxean dago, etxetik 600 kilometroira.



Gatazka politikoak konpontzeko ezker abertzalearen ekarpen politiko berritua aurkeztu zuen Arnaldo Otegi

Joan zen ostiralean, azaroaren 19an, Arnaldo Otegi Euskal Herriko gatazka politikoa konpontzeko, ezker abertzalearen ekarpen politiko berritua aurkeztu zuen Kimetz Elkartearen, bertako bazkideen aurrean. Hitzaldia gaueko 20:30ean hasi zen, eta 70 bazkide bildu ziren bertan. Proposamena aurkeztu ostean, entzuleen

galderak erantzun zituen Arnaldo Otegi, eta amaitzeko lagunarteko afaria egin zuten.

Azaroaren 14an Donostiako Belodromoan aurkeztutako proposamena gizarteratzeko kanpainaren barruan, Ezker Abertzaleak eragile desberdinekin bilerak burutzeaz gain, hitzaldiak ere eskainiko ditu.

Merkadilloaren gaiari jarraipena egiteko mahaia osatuko da

Azokako merkatariek, sindikatuek eta hainbat alderdi politikoetako ordezkariak (PSE-EE, EB-IU eta Einbiou) eginiko bileran, merkadilloaren gaiari jarraipena egiteko mahaia osatzea erabaki zen. Bestalde, merkadilloa Sigmara eramateko erabakiaren kontrako ekitaldiekin aurrera jarraituko dutela azaldu zuten. Honela, atzo, hilak 25, arratsaldean erabaki honen kontrako manifestazioa egin zen. Azokako merkatariek ez dute gai honen aurrean amore eman nahi, eta lanean jarraituko dute.



500 kilo gaztaina banatu zituzten Magosto Egunean



Galiza Kultur Elkarteak antolatuta Magosto Eguna ospatu zen azaroaren 20an. Goizean goizetik Galiziako produktu tipikoak dastatzeko aukera izan zuten Nafarroa Plazara hurbildu zirenek. Arratsaldean, berriz, 500 kilo gaztaina erre eta doan banatu zituzten. Eguraldi ederra egin zuen, eta giro onean pasatu zuten eguna.

Irati Agirreazaldegik Eibarko bertso paper lehiaketa irabazi du

...Eta Kitto! Euskara Elkarteak antolatutako San Andres bertso paper lehiaketa Debabarrenako eskualdera zabaldu dute aurtengoan, eta Irati Agirreazaldegik elgoibartarra izan da irabazlea bere kategorian. Iratik eutanasiaren gaia landu zuen. "Gerotik iraganera" izenburupean, bederatzi bertso egin zituen. Iratrentzat ez da lehenengo saria izan, baina ilusioz eta pozez hartu duela kontatu digu. Zorionak!



Urtebete pasa da tren istripua gertatu eta Udala "botiloia"ren kontrako neurriak hartzen hasi zenetik

SUMATU AL DUZU ALDAKETARIK "ZAPATUETAKO MOBIDAN"?



ANDONI LABRADOR

31 urte, metaleko langilea

Neurri batzuk hartu dira, baina ez nahikoak, gogorragoak izan behar dira. Gazteek udaltzainei ez diete kasurik egiten, ertzainen presentziak askoz gehiago beldurtzen ditu. Neurriek konstanteak izan behar dute.

MARI CARMEN RODRIGUEZ

53 urte, etxeoandrea

Bai, asko gainera. Lehen ezin zen San Frantzisko kalean behera joan, eta orain askotan, hutsik egoten da. Askoz jende gutxiago etortzen da. Udalak hartutako neurriak oso ondo iruditzen zaizkit.



JOSE ENRIKE GARCIA

62 urte, tornugilea

Baietz esango nuke, asko ez bada ere, egoerak hobera egin du. Udaltzainen eta ertzainen presentziak badirudi gazteak apur bat beldurtu egin dituela. Neurriak hartzea hoberako izan da.

ADOLFO MARTIN

49 urte, kalitate kontroladorea

Jende gutxiago ikusten da kalean, baina oraindik ere botiloia egiten da. Ez naiz asko ibiltzen kalean, ezin delako. Bernardo Ezenarro kalea zikinkeriaz beteta egoten da oraindik. Neurriak hartzea ondo dago.



EMMA CAMARZANA

31 urte, etxeoandrea

Bai, nire etxepean edaten zuten eta beherakada igarri dugu. Hala ere, neurriak ez dira egokiak. Denok izan gara gazteak, eta denok edan dugu kalean. Tabernetako prezioak garestiegiak dira, eta gazteek ezin dute ordaindu.

AGURTZANE BIKUÑA

44 urte, dendaria

Ez naiz larunbatetan asko ibiltzen kalean, baina joan zen astean jende gutxiago zebilela iruditu zitzaidan. Santa Klaran bizi naiz, eta autobusa hartzerakoan ere, jende gutxiago ibiltzen da. Neurriak beharrezkoak dira.



PINTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
Xixilion, 2 · 3.sotoa ☎ 943 74 36 52 - 74 27 89
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

Malape taberna
Orain astegunetan
San Frantzisko, 60

ZAHARTZEA ETA MENOPAUSIA

Zahartzea gertaera naturala da, eta jaiotzearekin batera hasten da. Zahartzeak pausoz pauso gertatu behar du. Heldutasun aroaren ostean, zahartzaroa hasten da, eta etapa bakoitzak bere kontuak dauzka.

Menopausia kontzeptuak azken hilerokoa adierazten du. 50 urte inguruan hasten da, eta funtzio obarikoa eteten duen prozesu fisiologikoa da. Sintomarik adierazgarrienak beroaldi eta itolarriak izaten dira. Hilerokoak eteteak emakumeak benetako egoera batekin jartzen ditu aurrez aurre: zahartzaroa. Gero eta emakume gehiagok sentitzen du hilerokoarekin bere emakumetasunaren ezaugarri adierazgarriena desagertzen dela.

Emakume gehienek aldarte aldaketa bortitzak jasaten dituzte. Nekeak eta depresioak oso ohikoak izaten dira menopausian dauden emakumeentzat. Batzuetan, esku eta hankek lo hartzen diotela ere igartzen du emakumeak.

Menopausia ondo bideratzea erronka zaila da gaur egungo emakumeentzat. Menopausiaren adina konstante mantendu da azken mendean, baina aldi berean, emakumearen bizi itxaropena izugarri handitu da. Gaur egungo emakumeen bizi itxaropena 80 urte inguruan dago. Ondorioz, emakumeak bere bizitzaren heren batean (25-30 urte inguru), hormona gabezia izaten du.

Azken finean, menopausia garaia, etapa zaila da emakumearentzat, eta kontu handiz tratatu behar dira.



Osasunari buruzko kezka bat argitu nahi baduzu,
deitu **BARRE**Neko 943 74 41 12ra

osasuna

Osasun  txokuak

MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda

(Medikuntza naturala, F. de Bach, masaia, makrobiotika, yoga)

San Bartolome, 25 • Tel: **943 74 40 31**

Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Surya Belardenda

(Zure osasunerako erremedio naturalak)

San Frantzisko, 23 • Tel: **943 74 25 34**

Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkarte

Urasandi, 9 • Tel: **635 71 55 03**

Egunero: 10-11:30/15-16:30/18-19:30/20-21:30

Mendaro

Astelehen eta asteazken: 10-11:30/15-16:30

Astelehen eta ostegun: 20:00-21:30

OPTIKAK

Ikus Optiko-optometrista

San Bartolome, 10 • Tel: **943 74 37 34**

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri

(optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21 • Tel: **943 74 03 59**

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12 • Tel: **943 74 35 62**

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

PODOLOGOAK

Iñaki Rivero

San Bartolome, 28 • Tel: **943 74 32 90**

Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

Oinberri

Errosario kalea, 25 • Tel: **943 74 17 95**

Astearte-ostiraletan: 9:00-13:30 / 15:00-19:30

Larunbatetan: 10:00-13:00

Gida honetan agertu nahi baduzu,
deitu **943 74 37 04ra**

ESKOLA KIROLA

AGENDA

Azaroak 27, 6. Jardunaldia

ESKUBALOIA, Kiroldegian

■ Infantil mutilak ■

11:40 Pilar A - BHI B

12:30 Ikastola A - BHI A

■ Infantil neskek ■

09:10 Ikastola B - BHI B

10:00 Ikastola A - Pilar A

10:50 Pilar B - BHI B

MINISASKIBALOIA, Herri Eskolan

■ Alebin mutilak ■

10:30 Ikastola A - Herri Eskola B

11:15 Pilar A - Mendaro 5-6

12:00 Ikastola B - Herri Eskola A

■ Alebin neskek ■

09:00 Ikastola A - Herri Eskola

09:45 Ikastola B - Pilar A

FUTBITOIA, Mintxetan

■ Benjaminak ■

09:10 Ikastola E - Herri Eskola C

09:45 Pilar 4 - Herri Eskola B

10:20 Ikastola C - Mendaro 4

10:55 Mendaro 3 - Pilar 3

11:30 Ikastola B - Herri Eskola A

12:05 Ikastola D - Ikastola A

Emakumeenganako tratu txarrei buruzko tailerrak eskaini ditu Biluzik Sexologia Zerbitzuak

Azaroaren 25ean, Emakumeen Tratu Txarren Kontrako Nazioarteko Eguna ospatu zenez, Eli Moreno, Biluzik Sexologia Zerbitzuko arduradunak, emakumeenganako tratu txarren inguruko tailerrak eskaini zizkien Elgoibar Ikastolan eta Elgoibar BH Institutuan. DBH 4ko ikasleei. Ikastaroeek bi orduko iraupena izan zuten eta hiru helburu nagusi:

1. Genero bortizkeria azalerratu, gertatzen diren tratu txarrei buruzko informazioa eman.
2. Gai honekiko dauzkagun ideia faltsuak deuseztatzea eta genero bortizkeria mantentzen duten arrazoi berri ematea.
3. Bikote nerabeen artean ematen den bortizkeria aztertzea eta gatazkei aurre egiteko baliabideak garatzea.



Tailer hauetan galdera sorta desberdinak erantzun ditu ikasle bakoitzak. Eli Morenok erantzun hauek estatistikak eta ondorioak aterako ditu, eta datorren urteko martxoaren 8an, hau da, Emakumearen Nazioarteko Egunean, kaleratuko ditu.

Txileko Hezkuntza Ministerioko kideak agurtu zituzten hilaren 19an



Joan zen azaroaren 19an Txileko Hezkuntza Ministerioko kideak agurtu zituzten Elgoibarko udaletxean. Hilabetez ikastetxe integralei buruzko ikastaroa egiten jardun dute IMHn. Mariivi Agirregomezkorta, Elgoibarko Alkatearen eskutik, Txileko eskualde desberdinetako Lanbide Heziketa Ikastetxeetako 21 zuzendariei agur esan zitzaion.

Ikastolako ikasleek kontsumo tailer mugikorretan hartu dute parte

Elgoibar Ikastolako Lehen Hezkuntza eta DBH 1 eta 2ko ikasleek Eusko Jaurlaritzak antolatutako kontsumo tailer mugikorretan parte hartu zuten azaroaren 15etik 19ra bitartean. Bertan landutako gaiak honakoak izan dira: ogia, analisiak, papera, ontziak, ura eta energia, segurtasuna, estetika, elikadura, ehunak, publizitatea eta garraioak.



Ikasleek gain, beraien gurasoek ere eduki dute tailerretan parte hartzeko aukera, honela, zenbait gurasok "Ikas dezagun seme-alabak ondo elikatzen" tailer praktikoan hartu zuten parte.

Santa Zezilia Egunean musika eta kantuz alaituriko kalejira egin zuten Ikastolako ikasleek

Azaroaren 22an Santa Zezilia Eguna ospatu zen, hau da, musikarien eguna. Urtero bezala, Regina Arrieta Ikastolako musika irakaslearen zuzendaritzapean, Elgoibar Ikastolako LHko ikasleek bi kalejira egin zituzten. Goizeko 8:30ean lehenengo Plaza Handitik Ikastolara ingurune guztia musikaz jantziz. Arratsaldean berriz, eskolak bukatu ostean, 16:30ean, Ikastolatik Plaza Handiraino egin zuten kalejira. Plaza Handira iritsi zirenean, guraso eta hainbat herritarren begiradapean abesti bat abestu eta kalejirari amaiera eman zioten.



Kili BARREN

Abenduaren 11n ospatuko da X. Kontsezio Azoka

Produktuen salmenta eta ganadu erakusketaz gain, "Bihurri" aizkolariaren ikuskizuna izango dira ekitaldi nagusiak

Mendaroko Udalak eta Debemenek (Debarrenako Nekazal Garapen Elkarte) antolatuta, datorren abenduaren 11n ospatuko da Kontsezioa Azoka. Urtero bezala, Herriko Enparantza, Goñati frontoian eta bere inguruetan ezarriko dituzte postuak. Besteak beste, barazkiak, fruituak, pastelak, ogiak, Mendaroko txokolatea eta gazta saltzeko postuak jarriko dira. Honez gain, artisau eta ganadu erakusketa ere izango da. Aurtengoan ere, posturik onak saria jasoko du.

"Bihurri" aizkolariaren ikuskizuna

Iaz bezala, aurtengoan ere, Ernesto Ezpeleta "Bihurri" aizkolariak hartuko du parte Kontsezio Azokan. "Bihurri" lau metroko perimetroa duen enborra moztuko du aurtengoan. Iaz 3,5 metroko perimetroa zeukan enborra moztu zuen, eta oraingoan bere errekorra hausten saiaturiko



"Bihurri" abenduaren 11n moztuko duen enborraren aurrean.

da. Gainera, enborra modu horizontalean kokatuta egongo da, eta 1,7 metroko luzera duen mangoak erabili beharko ditu. Bestalde, bertsolari eta trikitilarien emaldiak ere izango dira.

Igor Rey 6. eta Jesus Larrañaga 13. postuan sailkatu ziren Karakatera igoeraren XI. Edizioan

16 partehartzaile izan ziren guztira



Elgoibarko Morkaiko Mendizale Elkarteak antolatuta, Karakatera igoeraren XI. Edizioa jokatu zen joan zen larunbatean, azaroaren 20an. 16 lagunek hartu zuten parte guztira, eta horien artean, bi mendaroarrak izan ziren. Igor Rey atletak hirugarren aldiz hartu du parte aurtengoan. 33,48 minutuko denborarekin 6. postuan sailkatu zen. Igor Rey-k iaz egindako denbora hobetu egin du aurtengoan, eta iaz baino 1,48 minutu gutxiago behar izan baititu Elgoibarko Plazatik Karakateraino igotzeko.

Jesus Larrañagak, bestalde, 38,21 minutuko denborarekin, 13. postuan bukatu zuen Karakatera igoera.

Trikixapo 2004 bihar bukatuko da

In Leike Begirale Taldeak antolatutako Trikixapo 2004 egitasmoa bihar bukatuko da. Joko zaharren inguruko saioa antolatu dute azken egunerako. Arratsaldeko 16:30etik 18:30era bitartean, jolas eta txoko desberdinak izango dira Goñati frontoian, tabak, tronpa, soka saltoa, kromoak, kanikak eta txapak izango dira besteak beste. Azken saioa izango denez, In Leikeko begiraleek haur guztiak animatu nahi dituzte parte hartzera.

Herri barruko taxien tarifak igo egingo dira

Mendaroko Udal Plenoak datorren urterako taxien tarifak igotzea erabaki zuen, MTI alderdiko 6 boto eta EAJko bi botoekin. Honela, bi tarifa bereiztuko dira, bata eguneko tarifa, eta bestea gauekoa. Egunez, kostu minimoa 3,81 eurokoa izango da, eta kilometro bakoitzak 0,95 euro balioko ditu. Bestalde, taxia itxoiten egon behar den denborak, orduko 12, 77 euroko kostua izango du. Gauez tarifa hauek garestitu egingo dira. Kostu minimoa 4,15 eurokoa izango da, eta kilometroak 1,05 euro balioko ditu. Itxoiteko denbora, orduko 13,43 euro kobratuko da.

Mendarok 81 biztanle gehiago ditu

2003ko abenduaren 31n, 1.585 biztanle zituen Mendarok, 829 gizon eta 756 emakume. Aurtengo datuen arabera, 81 biztanle gehiago ditu Mendarok. Guztira 1.666, 875 gizonetako eta 791 emakume.



Kilibarren

Mendaroko Udalaren dirulaguntzarekin argitaratua

Nolako **GAZTEGUN**

Hilabete gutxi barru bere atek irekiko dituen gaztegunak, Mendaroko gazteen urteetako eskaera historiko bati erantzun nahi dio. Momentuan eraikin bat baino ez da. Alderdi politiko, aisialdi talde eta gazte taldeek osaturiko lan taldeak sei hilabete inguru dihardu lanean proiektu hau martxan nola jarri eta etorkizunean gaztegunea nolakoa izango den diseinatzen. Lan talde honen egitekoa, gaztegunearen hasierako motorra izatea da. Izan ere erabiltzaileek izango dute azkeneko hitza. Horretarako datorren astean inkesta bat banatuko da herrian 12 urtetik gorako gazteei zuzenduriko gune hori definitzen hasteko. Gaur beraien iritzia gurerara ekarri nahi izan ditugu. Gaztegunak nolakoa izan behar du? galdetu diegu.



Aingeru Gallastegi

KULTURA ZINEGOTZIA

"Gaztegunak irekia, malgua eta bizia behar du izan"

- **Irekia:** gaztea sentitzen den edonor errespetatua eta ongietorria dela sentiaraziko duen gunea.
- **Malgua:** gaztea sentitzen den edonoren beharrei erantzuteko moduko malgutasuna behar luke izan.
- **Bizia:** gaztegunean gertatzen eta garatzen den edozein iniziatiba gaztetasunak berea duen freskotasuna izan dezala.

Nire ustez, hauek lirateke gaztegunek batek izan beharko lituzkeen gutxieneko ezaugarriak. Baina azken finean erabiltzaileek emango diote beraien neurriko nortasuna eraikinari. Orain arte egin duguna, proiektua habian jartzeko gutxieneko adostasuna lortzea izan da. Hurrengo pausoak erabiltzaileen iritzia jaso eta partehartzea bultzatzera bideratuko dira.

Horrexegatik gaztegunearen ezaugarriak zeintzuk diren eta ze funtzio beteko dituen azaltzen saiatuko gara. Helburua, bakarra da. Mendaroko gazteen neurriko egokituko den proiektua garatzea. Zu zeu irakurle, gazte zein nagusi, haur edo guraso, proiektu honen protagonista behar duzu izan. Orain da garaia!



Alain Ulazia

AUZOLANIAN

"Gaztetxeak, gazte gune autonomoa behar du izan"

Inguruko izaki bizidunetako errespetuan (gizakia barne) eta bertakoen adostasunaren indar erabakitzailean definitzen da gure ustez Gaztetxea, eremu eta jende talde autonomo eta autogestionatu moduan. Gazteen guneak halakoa behar du izan, imajinario ariketa etengabea eta giza bizimodu posibleen esperimentu librea izan dadin. Parte hartuz, bizitzaren ikasketa kritiko eta eraldatzailea bultzatu behar da, jakin-mina zapuzten duten gaurko ereduaren alboan. Autonomiak sortzen du aldaketa hori dakarren zurrumbilo erakarlea.

Hau lortzeko bidean etsaiak gure baitan daudela nabarmendu behar da lehenbizi: kontsumismoa eta diruzalekeria. Hala eta guztiz, Udaletxeak eta batez ere, Mendaroko boteregune tradizionalak, oraintxe dute Gazte Asanbladakoei (korrante autonomo bati jarraipena eman dioten bakarrei) aterpe askatu bat behin betirako eskaintzeko unea. Gainera, Gaztetxea eta beste antolakuntza mota bateko gune bat ez dira bateraezinak, biak egon daitezke batera, toki desberdinetan noski.

Gazteek hala nahi dutela eta inkestetan hala agertuko dela ziur gaude.

NEA nahi dugu



Mikel Tarragual

GAZTE ASANBLADA

"Funtzionamendu autogestionatua eta asanblada bidezkoa eduki behar du"

Gure ustez gaztegunek herriko gazteek dituzten arazoak konpontzeko eta ideiak azaltzeko esparru bat izan behar du. Ideia hauek barruko asanbladaren bitartez eztabaidatuko lirateke. Asanblada honetan herriko edozein pertsona nahiz elkarte parte har dezake eta ez guke nahi gure sormena aurrera eraman ahal izatea eragotziko duen edozeinek ezer inposatzerik.

Gure nahia, gune honen funtzionamendua era autogestionatu batean eramatea da, hau da, bertan antolatzen diren ekintzak izatea eremu honen diru iturria. Herri honetan Gazte Asanblada izan da gazteontzako alternatiba bakarra eskaini duen taldea, beraz, kontutan hartu beharrekoa dela deritzogu. Orain arte bi Gaztetxe izan dira eta herriko gainontzeko gazteek Gazte Asanbladarekiko erakutsi duten elkartasunari esker aurrera atera dira gure eskuetan egon den bitartean.

Beraz, azaldu ditugun arrazoiak nahikoak eta soberan direlakoan, espero dugu inkestan parte hartze handi bat izatea eta Mendaroko gazteon nahia orain arte izan den bezala argi geratzea. Hau da Gaztetxea Orain!



Ramon Alberdi

EAJ

"Apolitikoa eta herriko edozein gazteri irekia izan behar luke"

Gaztegunea Mendaroko gazte edo gazte sentitzen diren pertsona guztientzako atek zabalik eduki behar dituen lekua da, bertan adin, sexu eta pentsaera politiko desberdinak dituzten pertsonak parte hartzeko aukera izan beharko luketelarik. Gure ustez gaztegunek leku apolitiko bat izan beharko luke, lehen aipatu bezala ideia politiko desberdinetako jendeaz osatzen dena, inor kanpoan gera ez dadin.

Beste atal garrantzitsu bat nork edo nortzuk eramango duten gaztegunearen kudeaketa da. Gure proposamena, Mendaroko gazte elkarte desberdinen (In leike, Gazte Asanblada, koadrilak...) eta Udaleko teknikari baten arteko elkarlana izatea da.

Hala ere, ez dugu autogestioaren ideia baztertzetik nahi. Herriko edozein gazte gaztegunearen kudeaketan parte hartzeko prest balego ez luke arazorik izan behar "lan taldeko" kide izateko. Behin "lan taldea" osatu eta gero, ekintza desberdinak (tailerrak, irteerak, hitzaldiak...) antolatzea izango da talde horren lana.

Uste dugu herritarrontzako proiektu interesgarria dela eta ea denon artean aurrera ateratzeko borondatea jartzen dugun.

Erretratu zaharra



Filabete honetako erretratu zaharra **Santiago Ansuategi** lagar digu. 1953. urteko Gabon Zahar feria egunean ateratako argazkia da eta Gabi jatetxearen atarian aterata dago. Garai hartan, argazkilari asko etortzen ziren fondo desberdinak jarritz, koadrilako argazkiak egitera. Egun hartan bizi izandakoak oroimenean gordetzeko, Santiago Ansuategi eta bere lagunek argazkia atera zuten. Gogora ditzagun zeintzuk diren argazkian ageri direnak:

Ezkerretik eskumara: **Felix Larrea, Santiago Ansuategi, Martin Belategi (†), Txomin Longarte eta Maximo Egaña.**



ESKERTZA

2004ko azaroaren 18an, 81 urte zituela hil zen
JUAN ARRIETA USABELen emaztea,
seme-alabak eta gainerako sendiak,
bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





OSASUNA

Anbulatorioa	943 03 26 10
Planning-a	943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak	943 74 03 85
D.Y.A (anbulantzia)	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00
Odol Emailak	943 74 39 36

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	943 74 04 42
PESA (Eibar)	902 10 12 10
Taxi geltokia	943 74 08 98

UDALA

Euskara Zerbitzua	943 74 43 66
Udal Kirol Patronatua	943 74 44 15
Kultura Zerbitzua	943 74 21 58
Mendaroko Udala	943 75 61 00
Ongizate zerbitzua	943 74 10 08
Udaletxea	943 74 10 50
Udaltzaingoa	943 74 13 94

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra	943 74 16 26
Kiroldegia	943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa	943 74 30 88
Liburutegia	943 74 35 25
Musika Eskola	943 74 21 45
Mintxeta	943 74 43 15
Parrokia	943 74 08 42
Postetxea	943 74 15 47
Gaztetxea	943 74 35 72
Gazte Informazioa	943 74 14 61

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza	943 74 02 96
Zaharren Biltokia	943 74 05 26
Eguneko Zentroa	943 74 45 65

IKASTETXEAK

Haur Eskola	943 74 21 41
HHI (EPA)	943 74 08 80
Herri Eskola	943 74 08 79
I.M.H.	943 74 41 32
Institutua	
Arreiturre	943 74 80 19
Ezenarro (Meka)	943 74 80 19
Ikastola	943 74 44 41
Pilar Ikastetxea	943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN	943 74 41 12
El Diario Vasco	943 74 40 73
El Correo Español	943 74 10 82
Zazpiki irratia	943 74 34 74
Egunkaria	943 30 02 28
Gara	943 31 69 99

Farmazia - okindegia

EGUNEZ

26	Zabaleta
27	Etxeberria (Errosario kalean)
28	Etxeberria (Errosario kalean)
29	Fernandez
30	Bidasolo
1	Etxeberria (Santa Ana kalean)
2	Ibañez
3	Yudego

GAUEZ

Zabaleta
Etxeberria
Etxeberria
Fernandez
Bidasolo
Etxeberria
Ibañez
Yudego

FARMAZIAK

ESCALA , Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38
FERNANDEZ , Herriko enparantza 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42
ZABALETA , Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84
OKINDEGIA 28 igandea Doña Mercedes

Eusko Tren

DONOSTIA-BILBO

Egunero			
Donostia AMARA	5.45	06.45...	20.45
Elgoibar	07.02	08.02...	22.02

* jaiegunetan 7.45ean hasiko dira

MENDARO-ELGOIBAR

Egunero		
Mendaro	07.50	08.50... 21.50

Eusko Tren

AUTOBUSAK

BILBO-DONOSTIA

Egunero			
Bilbo	06.00	7.00...	20.00
Elgoibar	07.23	08.23...	21.23

* jaiegunetan 8.00etan hasiko dira

ELGOIBAR-MENDARO

Astegunetan			
Elgoibar	07.25	08.25	10.25... 21.25
Jaiegunetan			
Elgoibar	08.25	09.25	10.25... 21.25

ELGOIBAR

SIGMA ● ———— ● ARRIAGA

SIGMA - ARRIAGA

8:00	8:10
9:25	9:35
11:10	11:40
11:20	11:50
12:10	12:40
12:20	12:30
13:10	13:20
13:20	13:30
18:20	18:30
19:10	19:20

ARRIAGA - SIGMA

8:10	8:20
9:55	10:05
11:10	11:20
11:40	11:50
12:10	12:20
12:40	12:50
13:10	13:20
18:10	18:20
19:00	19:10

nola ALDATU diren gauzak!

2004-XI-26



1940 eta 1950 urte tarte inguruko erretratu honetan Madalako zubi zaharra ageri zaigu lehen planoan. Elgoibarren zubi hau oso ospetsua izan da beti, eta gaur egun ere, halaxe izaten jarraitzen du. Madalako zubi honetatik baserriar asko pasatzen ziren, baserriko ganadua hiltegiara eramateko. Honetaz gain, Pilar Ikastetxeko ikasleak ere zubi honetan zehar joaten ziren eskolara, baita makina bat gazte Lerungo futbol zelai zaharrera ere. Honetaz aparte, beste hainbat gauzatarako pasagunea izan da Madalako zubia, 1953. urteko uholdeetako urak bota zuen arte.

Argazkian ikusten den bezala, Elgoibarko industria suspertzen hasita zegoen garai hartan. Hemen ageri zaigu Fundiciones Urasandi eta beste enpresaren bat. 1940. urtean ireki zen Fundiciones Urasandi enpresa.

Garai hartan Madalako zubiaren beste aldean ez zegoen bizitza handirik. San Migel bailara hutsik ageri zaigu, Errezabal eta Urtia baserriak bakarrik ikusten dira.

2004ko argazki honetan, zeharo aldatuta ageri zaigu ingurune hau. Industria aldetik, lehen baino askoz enpresa gehiago ikusten dira, Madalako zubia erabat berrituta dago, eta begira San Migel bailara zegoen tokian nolako auzo dotorea dagoen! Urasandi auzoa, eta bere izena ere, hortik dator, uraz handik dagoelako, ibaiaren beste aldean, alegia. Jende asko bizi da auzo honetan, eta egun osoan zehar eguzkiak jotzen duen auzoa da. Bestalde, lehen ganadu hiltegia zegoen tokian, gaur egun parkea dago, eta zubiaren eskuin aldean San Lazaro Egoitza. Honetaz gain, argazkian agertu ez arren, taberna eta denda berri asko ireki dira. Zubiko bidegurutzean errotonda berria eraiki dute duela gutxi, eta auto mordoa ibiltzen da bertan. Mugimendu handiko zubia da, eta mota guztietako ibilgailuak pasatzen dira bertatik. Elgoibarko sarrera eta irteera garrantzitsuenetarikoa da bera.

Juanito Gorostiza



Lorea Etxabe Azkue

2003ko azaroaren 26an hil zen
30 urte zituela

*Edur zuritxan hazitxako
lore gorrixa ziñan.
Urtu eraitxen zendun
inguruko hotza,
eta bedarra hazi erain.*

*Ez dogu gehixao
zure berua igarriko,
baña hementxe gerauko da
zure arnasia aztarnia,
botatako sustraixen gañian.*

Zure lagunek eta familia

URTEURRENEKO MEZA izango da
ostirala, hilak 26, arratsaldeko 19:00etan San Bartolome Parrokian.



*Euskarazko liburuak azkar saltzea erraza izan ez arren, Joseba Iriondoren "Palestina hotela (not american; I'm basque)" liburua-
ren hirugarren edizioa dago jada kalean. ETBko kazetari eta aur-
kezleak Bagdad-en berri emaile lanetan aritutako egunen kronika
jaso du bertan. Bere lanari eta munduan zehar izandako espe-
rientziei buruz berba egin zien Elgoibar BH Institutuko ikasleei
duela gutxi. Bisita hura aprobetxatu genuen Joseba elkarrizketa-
tzeko.*

**"Lekuko deserosoak
gara kazetariok
liskar guneetan"**

■ **Zein da liburua horren arrakastaren arrazoa?**

Ez dakit. Une egokian eginikoa dela esango nuke, tamalez Irakeko gatazkak puri-purian jarraitzen duelako. Pentsatu nahi nuke eguneroko albisteak ulertzeko giltzak lortu nahiko dituela irakurleak. Horrez gain, irakurtzen erraza da. Kazetaria izanik zaila egiten zait irakurterraza ez den hizkuntzan idaztea. Hori zen nire helburua.

■ **Zer ikasi zenuen gerraz Palestina hotelean?**

Lanbideari dagozkionez gauza interesgarri asko dagoela, baina pertsona bezala min ematen duten beste asko ere bai.

■ **Gerra bateko lehen biktima gezurra dela dioen esamoldea egiaztatzerik izan al zenuen?**

Aurrez ere banekien hori, Afganistanen frogatu ahal izan nuen. Iraken ere betetzen zen. Gerra batean bi aldeek diote gezurra. Irakiarrek ere ziri ederrak sartzen zizkiguten, saiatu behintzat. Estatuabatuarek Irak inbaditzeko erabili zituzten argudio denak izan ziren gezur hutsa. Bere gizarteari entzun nahi zutena esan zioten, benetako arrazoiak ezkutatu, horiek norbaiti botatzeko aurpegi azal handia behar delako.

■ **Hortaz, merezi al du gerra-erreportarien bizia arriskatzeak?**

Helburua etxera itzultzea da. Ezin da ezer kontatu hilkutxa batetik. Beraz, merezi du bizia arriskuan ahalik eta gutxien jarriaz gauzak kontatzeak. Bonbardatua izaten ari zen hiri batean egotea ez da beti larregi arriskatzea.

■ **Gerra erreportari baten egunerokoa filmetan erakutsi izan diguten modukoa al da?**

Pelikuletako heroi kutsu hori ez dauka. Denori gustatuko litzaiguke borrokan ari diren eremu batera joatea,

baina baimenik ez dute behin ere ematen. Liskarrak diren leku batetik lekukoak kentzea izaten da lehentasuna, eta lekuko deserosoak gara kazetariok.

■ **Benetako beldurrik pasa al zenuen uneraren batean?**

Beldurra ez, horrek erantzun egokiak emateko gaitasuna kentzen duelako. Tentsioa bai, horrek beti adi egoten laguntzen du.

■ **Grabatuta geratu zitzaizun irudi bat?**

Couso plastikozko poltsan.

■ **Zure ustez, zein izan zen AEBek Irak erasotzeko arrazoa?**

Nire ustez Israeli segurtasun koltxoia eman behar zitzaion. Pertsonaia arriskutsuegia zen Saddam Husein Tel Avivetik hain gertu. Ez zeukan suntsipen handiko armarik baina haiek lortzeko ahaleginak beti egin zituen eta beti egiten zituen. Horrez gain, han botatuko bonba guztiak finantzatzeko modua eskaintzen du Irakek, petrolio mardoa dauka-eta.

■ **Kerryk AEBko hauteskundeak irabazi izan balitu, irakiarrentzat hobe izango litzatekeela uste al duzu?**

Ez. Okerrago ezin da, baina ez dut pentsatzen gauzak asko aldatuko liratekeenik. Inbasioa egun batetik bestera amaitu dela entzun nahi genukeenontzat zakur bera da Kerry.

■ **Talibanen azken egunak bizi zenituen Afganistanen. Zer aurkitu zenuen han?**

Erdi Aroan bizi zen herri bat. Kalasnikovak eta 4x4 autoak bakarrik ziren garaikideak. Argindarrak ez zegoen, eta jendeak gerra besterik ez zuen ezagutzen. Harrigarria zen. Eta da. Maiteminduta nauka Afganistanek.


**"Afganistanen Kalasnikovak
eta 4x4 autoak bakarrik
ziren garaikideak"**

JOSEBA IRIONDO

Josu Arregi azpeitiarra nagusi XI. Karakatera Igoeran

16 lagunek parte hartu zuten

Ander Mujika



Josu Arregi



Ibon Gabilondo

Iñigo Ortuoste



Goiko argazkian, Karakatera igoeran parte hartu zuten korrikalariak. Ezkerreko argazkitan lasterketako une batzuk.

A spaldiko partez kanpotar bat nagusitu zen XI. Karakatera Igoeran, Josu Arregi azpeitiarrak irabazi baitzuen. Arregik ez zuen Karakateko igoera ezagutzen proba prestatzen hasi zen arte. Santi Maiztegi elgoibartarrak irakatsi zizkion hartu beharreko bidezidorrak, baina goi aldekoak bakarrik. Dena dela, hasieratik jarri zen buruan eta denbora aparta egin zuen tontorrean: 30'42''. 35 urteko azpeitiarra sasoi puntu ezin hobean iritsi zen Elgoibarrera, astebete lehenago 1:07'22'' denbora lortu baitzuen Behobia-Donostia lasterketan, 50. postuan sailkatuz. Azken edizioetan Susoren errekorra (29'43'') gehien hurbildu den parte hartzailea izan da Arregi eta datorren urtean ere etortzeko intentzioa duela adierazi zuen. Iaz moduan Ibon Gabilondo sailkatu zen bigarren postuan. Triatloietan aritzen den elgoibartarrak 32 minutu justu behar izan zituen 700 metroko desnibela gainditzeko, iaz baino 39 segundo gutxiago. Hirugarren postuan Jose Mari Fernandez "Suso", igoera zazpi alditan irabazi duen probako dominatzaile nagusia sailkatu zen, iazko denbora berdina eginez. Bere errekorra

arriskuan ikusi zuen Susok eta hala adierazi zuen tontorrean, baina oraingo bera izan da lasterketa batean Karakatera bizkorren igo den gizasemea. Guztira 16 antxintxikarik parte hartu zuten eta Karakate gainean bildu zen jende mordoaren animuak jaso zituzten. Aurreko egunetan eginiko euriaren eraginez basa asko topatu zuten bidean, baina antxintxika egiteko egun aproposa eduki zuten.

Sailkapena

Izena	Denbora
1. Josu Arregi (Azpeitia)	30'42''
2. Ibon Gabilondo	32'00''
3. Jose Mari Fernandez	32'13''
4. Martin Dominguez	32'20''
5. Iñigo Ortuoste	33'14''
6. Igor Rey (Mendaro)	33'48''
7. Sabin Zenarruzabeitia (Aulestia)	34'41''
8. Haritz Arrieta	35'35''
9. Zigor Alberdi (Soraluze)	35'47''
10. Ibon Serrano (Eibar)	37'23''
11. Gorka Agirreazaldegui (Itziar)	37'49''
12. Javier Torquemada	37'55''
13. Jesus Larrañaga (Mendaro)	38'21''
14. Ibon Villanueva	40'42''
15. Andoitz Agirregomezkorta	42'03''
16. Ander Mujika	45'09''

Aitor Garitagoitia Gipuzkoako Oilagor Ehiza Txapelketa irabazi zuen

Aitor Garitagoitia eta "Sol", bi urteko setter-angeles arrazako txakurra, dira Gipuzkoako Oilagor Ehiza txapeldun berriak. Aitorrentzat lortu duen hirugarren txapela izan da honakoa eta abenduaren 5ean, Euskadiko Txapelketan parte hartuko du Araban. San Lorentzoko beste auzotar batekin egingo du topo bertan, Patxi Arriola baita iazko Euskadiko Txapelduna eta hau ere txapela buru gainean mantentzen saiatuko da. Aitorrek San Lorenzo bailara inguruko mendiak aukeratu zituen ehizan egiteko, Basueta baserrikoa izanik hobekien ezagutzen dituenak baitira. Goiz osoan han eta hemen ibili ostean azken ordura arte ez zuela ezer aurkitu aipatu digu, "lehenengo bi oilagorrak "Sol"ek topatu zituen 12:55ean eta hirugarrena 13:13ean. Kontrolera 13:28ean iritsi nintzen ozta-ozta, itxi baino bi minutu lehenago, hain zuzen ere". Guztira 18 ehiztarik parte hartu zuten txapelketan Gipuzkoako hainbat menditan



aldi berean ehizatuz. Gero zehaztutako 5 kontrol puntutara eramán zuten ehiza 13:30ak baino lehen eta Aitor Garitagoitia izan zen pieza gehien aurkeztu zituena.

XIV. Elgoibarko Nazioarteko Xake Txapelketa abenduaren 11n hasiko da

Euskadiko Xake Federazioak, Elgoibarko Kirol Patronatuak eta Zubi Ondo Xake elkarteak antolaturik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, abenduaren 11tik 17ra ospatuko da XIV. Elgoibarko Nazioarteko Xake Txapelketa. Txapelketaren aurkezpena abenduaren 11n, zapatuan, izango da Kultur Etxean 12:00etan eta jarraian, 16:00etan emango zaio hasiera txapelketari. Partidak, egunero, 16:00etatik 22:00etara izango dira Kultur Etxean. Nazioarteko txapelketa magistral honetan 10 xakelari arituko dira lehen: hiru euskaldun bi espainiar, bi bulgariar eta argentinarrak, ingeles eta



Azerbayandeko jokalaria bana. Iazko irabazlea, Horacio Saldaño argentinarra ere tartean izango da bere titulua defendatzen.

Pascual Molina eta Eusebio Elias Mus Azkarreko txapeldunak



XVI. Mus Azkar Txapelketa jokatu zen Herri-Gain Elkartean azaroaren 20an. Hogei bikotek eman zuten izena eta zortzi onenek eskuratu zituzten sariak. Partidak jokatu ostean, Carmelo Lasuenek eta Andres Ondarzak osatutako bikotea alde batetik, eta Pascual Molinak eta Eusebio Eliasek osatutakoa bestetik, iritsi ziren finalera. Azken hauek nagusitu ziren eta txapela eta izen emateen %50az gain, Aranburu bitxidendak eskaintako garaikurra eta Liberty Seguroak etxeak emandako erloju bana eskuratu zituzten.

EMAITZAK

Futbola

Elgoibar 4 – Ilintxa 2 (Kad.)
Elgoibar 0 – S. Tomas Lizeoa 1 (1. erreg.)
Elgoibar 2 – Eibar 1 (Jub.)
Elgoibar 2 – Bergara 3 (Neskak F-8)
Elgoibar 1 – Hernani 0 (Neskak)
Anaitasuna 0 – Elgoibar 1 (Inf. A)
Tolosa 5 – Elgoibar 0 (Inf. B)
Lagun Onak 0 – Elgoibar 1 (Aleb.)

Esku pilota

Gipuzkoako Txapelketa
Bergara 5 – Lagunak 22 (Nag.)
Lagunak 11 – Aurrera Sayaz 22 (Nag.)
Tartaloetxe 10 – Lagunak 22 (Jub. banaka)
Lagunak 22 – Ilunpe 15 (Kad.)

Areto futbola

Kenci Elg. 4 – Muskiz 2 (Nazional B)
Lanbroa 2 – Antxeta 2 (1. maila)
Aldapeta 4 – Toletxe 6 (Jub.)

Eskubalola

Tecnomeca Sanlo 26 – Donibane 18 (Kad. mut.)
Tecnifuelle Sanlo 27 – Zarautz 30 (Sen. mut.)
Sanlo 18 – Legazpi 18 (Inf. mut.)
Aloña Mendi 35 – Sanlo 7 (Inf. nesk.)
Ermua 13 – Pagoaga Sanlo 13 (Kad. nesk.)
Ermua 14 – Cometel Sanlo 25 (Jub. nesk.)
Aitxuri 19 – Pneumax sanlo 14 (Jub. mut.)

Idarraga kafeak 8. saria

HAUNDIKO jokalari erregularrena 04/05
JOKALARIA PUNTUAK

1- J. Igartua.....	23
2- Mikel Calvo.....	15
3- Javi Gomez.....	15
4- Navarrete.....	13
5- Loren.....	12
6- J. Arrasate.....	11
7- Ibai Gonzalez.....	10
8- I. Oruesagasti.....	8
9- M. Elgoro.....	8
10- Iribar.....	8

AGENDA

Eskubalola, Kiroldegian

Zapata, 27
16:00 Cometel Sanlo – San Adrian (Jub. nesk.)
17:45 Pagoaga Sanlo – San Adrian (Kad. nesk.)
19:15 Pneumax Sanlo – Leizaran (Jub. mut.)
Domekia, 28
10:45 ANTT sanlo – Arrasate (Sen mut.)
12:30 Sanlo – Boom (Sen. nesk.)

Futbola, Mintxetan

Domekia, 28
10:30 Elgoibar – Mutriku (Aleb.)
12:00 Elgoibar – Zarautz (Inf. B)

Areto futbola, Kiroldegian

Zapata, 27
12:30 Toletxe – Mariaren lagundia (Jub.)

Esku Pilota

Barixakua, 26
21:15 Lagunak – Ilunpe (Jub.)
22:00 Lagunak – Txapagain (Jub. banaka)
22:45 Lagunak – Intxaurren (Nag.)



Langai
Euskal Lan Zerbitzua

Donostiako enpresak **botikaria** behar du. **Erref. 162004010054**

Elgoibarko enpresak **galdaragilea** behar du. **Erref. 162004007501**

Gipuzkoako enpresak **kamioi gidaria** behar du. **Erref. 162004007053**

Zumaia enpresak **soldadorea** behar du. **Erref. 162004000053**

Gipuzkoako enpresak **komertziala** behar du. **Erref. 162004010057**

Eibarko enpresak **promotorea** behar du. **Erref. 162004009982**

Arrasateko enpresak **pintorea** behar du. **Erref. 162004008047**

Eibarko enpresak **harrerarako langilea** behar du. **Erref. 162004009873**

Antzuolako enpresak **garbiketarako langilea** behar du. **Erref. 162004010059**

Hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu **901222901** telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauetako batera deitu: Elgoibarko Institutua (Peio Juaristi) **943 74 80 19** edo IMH (Nora Ramón) **943 74 41 32** telefonora.

Lana

ESKAERA

◆ Emakumea orduka etxeko lanak edo garbiketa lanak egiteko prest. **☎ 646 11 30 85**

◆ Emakumea umeak, nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. **☎ 634 93 24 26**

◆ Lau neska portalak, komunak... garbitzeko prest. Deitu lehenbailehen. **☎ 666 09 02 01**

◆ Pertsona arduratsua eraikuntzan, soldaduran... lan egiteko prest. Premiazkoa. **☎ 943 53 21 82/661 22 51 49**

◆ Sistema informatikoen administratza ikasi duen pertsona eskaintzen da lanerako. **☎ 943 19 24 96**

◆ Emakumea etxeko lanak egiteko prest. **☎ 637 93 24 26**

◆ Emakumea garbiketa lanak egin, nagusiak edo haurrek zaintzeko prest. 10:30etik 17:30era, asteburuak barne. **☎ 626 91 49 04**

ESKAINITZA

◆ Neska bat behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Egun solteak. **☎ 9443 74 18 46 (20:00etatik aurrera)**

◆ Asteburuetarako kamareroa behar da. Esperientziarekin. **☎ 670 25 04 29**

◆ Bi edo hiru neska behar dira publizitatea banatzeko. Komisioekin diru asko irabazi daiteke. **☎ 606 88 00 51/943 60 33 84**

◆ Etxerako laguntzailea behar da. **☎ 619 40 92 88**

◆ Sukaldean lan egiteko jendea behar da. **☎ 943 12 12 62**

Etxebizitzak

◆ Apartamentua eta txokoa salgai EAn (Bizkaia). Aukera ezin hobea. **☎ 639 47 47 39 (Manolo)**

◆ Bikoteak etxe merkea hartuko luke alokairuan. **☎ 943 74 25 75**

◆ Etxea salgai Mendaron. Altzariz jantzi berria. Dena kanpora begira. Prezioa adosteko. Aukera paregabea. **☎ 625 260 939/943 75 62 05**

◆ Etxebizitza salgai. Duplexa, 160m². 4 logela, 35m² egongela tximiniarekin, sukaldea, komuna. Dena kanpora. Oso lasaia. Primeran prestatua. 288.500 euro. **☎ 639 31 84 77**

◆ Pisua salgai Basarten. 74m². Garaiea erosteko aukera. **☎ 687 05 17 89**

◆ Etxea salgai San Frantzisko kalean. 67m². Bi logela, egongela, sukalde handia, komuna. Eguzkitsua. Bizitzera sartzeko moduan, altzariekin. **☎ 699 29 36 13**

◆ Logela alokatzen da Sigman. **☎ 659 627 356**

◆ Pisua salgai Mendaron. Bi logela, egongela, sukaldea, komuna, balkoia. 57m². **☎ 943 03 36 43/666 87 47 37**

◆ Etxea hartuko nuke alokairuan. Premiazkoa. **☎ 687 11 70 22**

◆ Etxea salgai Basarten. Bi logela, bi komun, egongela eta sukaldea. **☎ 620 549 500**

◆ Etxea salgai Eibarren. Bi logela, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa. Dena kanpora begira. Garaiea aukeran. **☎ 625 59 44 46**

OHARRA:

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

Salerosketak

◆ Orbea mendiko bizikleta salgai. Team 04 official series aluminiozko koardoa, X fusion Glyde RC-100 amortiguadore... berria, estreinatua gabea. 900 euro. **☎ 658 729 032**

◆ KTM 125 motorra salgai. **☎ 696 89 60 88**

◆ Audi 100 autoa salgai. 115 zaldi. Zuria, 8 urte. **☎ 655 72 83 29**

◆ Terrenoak erosiko nituzke Elgoibarrren. **☎ 670 23 52 54**

◆ Seat Toledo Magnusa autoa salgai. 90 zaldi. SS-4347-AZ. **☎ 653 015 846**

◆ Play Station 1, salgai. Bi mando, memory card, joku orijinala. 70 euro. **☎ 943 74 32 96**

◆ Ford Sierra 2.0 cl autoa salgai. Egoera onean. SS-7427-AC. **☎ 943 74 43 98**

◆ Opel Kadett, 1.400 salgai. Ekonomikoa. **☎ 652 77 11 94**

◆ Renault 11 autoa salgai. Gorria. 600 euro. **☎ 943 74 28 40**

◆ Citroen Xsara Picasso 2.0 HDI salgai. 2002koa. Beti garaiean. ABS, 4 airbag, klimatizadorea, kristal dindatuak... **☎ 628 507 951**

Lokalak

◆ Gazte koadrila batek lokala hartuko luke. **☎ 660 69 53 03 (16:30-22:00)**

Bestelakoak

◆ Kazadora Burberrys bat azaldu da. **☎ 943 74 13 21**

◆ Azaroaren 14an, perikito bat aurkitu genuen Urasandiko parkean. **☎ 943 74 38 29 (13:00-14:00)**

◆ Siemens MC 55 mobila galdu dut. **☎ 943 74 21 39**

◆ Eraztuna galdu dut. Urre zuria eta hori kolorekoa. Ezkontza eraztuna da, sentimental. 24-4-04 data dauka grabatuta. **☎ 636 35 56 31**

Garajeak

◆ Garaiea salgai Madalatik gertu. **☎ 943 74 24 06**

◆ Garaiea marraduna alokatzen da San Roken. **☎ 653 73 94 67**

◆ Garaiea itxia alokatzen da Ikastolatik gertu. **☎ 943 53 16 48**

ALBERDI

ERREKADISTA ☎ 609 264 705

ELGOIBAR - DONOSTIA (enpresa eta partikularrentzako)

BILKETAK

- Paketeak
- Gestoria
- Sobreak
- Komertzioa

GESTIOAK

- Ogasuna
- Trafikoa
- Merkataritzako erregistroa
- Diputazioa
- Merkataritzako - ganbera

Agurrak



♦ Zorionak **Melany**, hilaren 25ean urteak bete zenituelako. Gurasoen, aiton-amonen eta osaba-izeben partez.



♦ Zorionak **Cristian**, hilaren 27an, 5 urte egingo dituzulako. Garazi eta familiako guztien partez.



♦ Zorionak **Dora**, hilaren 23an zure eguna izan zelako. Senarraren, seme-alaben eta biloben partez.



♦ Zorionak **Nerea**, hilaren 27an, 3 urte beteko dituzulako. Aitxixa, amama eta birramona Mariaren partez. Zure txokolatezko tartaren zain gaude.



♦ Zorionak **zapatari** guapoenari gaur, hilak 26, bere eguna delako.



♦ Zorionak **Sofia**, bihar hilak 27, 4 urte beteko dituzulako. Lehengusu, lehengusina, eta etxeko guztien partez. Eta muxu handi bat bereziki, aitarien partez.



♦ Zorionak **Miren**, Lorea eta Kristinaren partez.



♦ Zorionak **Nora** eta **Koldo**. Familiako guztien partez, muxu handi bana.



♦ Mila kilo zorion **Nerea** eta **Aimar**, bihar, 3 urte beteko dituzuelako. Gurasoen partez.



♦ Zorionak **Asier**, eta muxu handi bat ama, aita, Alex eta Piporen partez.



♦ Zorionak zuen urrezko ezteietan. Familiako guztiaren partez.

BEKAK

Aleman ikastaroak Alemanian

Ikasketen Trukerako Zerbitzu Alemanak (DAAD), 2005. urtean Alemaniako Errepublikako Federaleko Hizkuntza Institutuetan alemaneko ikastaro trinkoak egiteko 15 beka eskaintzen ditu. Baldintzak: karrerako bigarren kurtsoa amaituta izatea (Germaniar Filologiako ikasleak salbuetsita), goi-mailako ikaslea izatea, gutxienez Goethe Institutuaren "Grundstufe I" mailako eta gehienez "Mittelstufe I" mailako alemaneko ezagutzak izatea eta 19 eta 32 urte bitarteko adina izatea. www.embajada-alemania.net. Epea: abenduak 12

EKINTZAK

Irungo Gazteen Zinema eta Bideo Topaketak

Irungo Udalak antolatuta, Irungo Gazteen zinema eta bideo IX. Topaketak ospatuko dira abenduak 26 eta 29 bitartean Irunen. Topaketa hauen barruan laburmetraien lehiaketa egongo da eta 18 urtetik 35 urtera bitarteko gazteek lehiaketako epaimahai gazteko kide izateko aukera dute. Epaimahai gazteak erabakiko ditu "+Cortos" saileko irabazleak. Baldintzak: izena ematea eta lehiaketako emanaldi guztietara joatea. Epea: abenduak 17

LEHIAKETAK

Gabonetako posta txartelak

Abadiñoko Udalak gabonetako posta txartelen lehiaketa antolatu du 8 urtetik gorako gaztetxoentzat. Txartelen gaia Gabonak izango dira eta neurria 16X25 zm edo txikiagoa. Lehiaketak 4 maila ditu: 8 urte arte, 9-11 urte bitartekoak, 12-15 urte bitartekoak, 16 urtetik gorakoak. Sariak ikasteko materiala izango dira. Epea: abenduak 3

Inauterietako kartela

Irungo Udalak, Irungo 2005eko Inauterietako iragartzeko kartela aukeratzeko lehiaketa antolatu du. Teknika librea izango da eta kartelak formatu bertikala izango du, 70 x 50 zm neurriekin. Epea: abenduak 30

Haurrentzako ipuinak

Zarauzko Udalak XXIII. Xabier Lizardi Saria, Haur Ipuin Lehiaketa antolatu du, euskal kulturgintzaren barruan haur eta gaztetxoentzako literatura suspertu nahirik. Bertan 18 urtetik gorakoek parte har dezakete, euskaraz idatzitako lan orijinalak, argitaragabeak eta beste inolako lehiaketan saritu gabeak aurkeztuz. Gaia librea izango da eta luzera 12 orrialdetik gorakoa. 3.000 euroko sari bakarra. Epea: urtarrilak 12

Ipuinak

Gordexolako Kultur Etxeak "XVII. Gordexolako Harana" saria antolatu du. Bertara 6 eta 30 urte bitarteko gazteek aurkez ditzakete euren gai libreko ipuinak. Bi modalitate: euskara eta gaztelania, modalitate bakoitzeko 5 kategoria: 6-9, 10-12, 13-15, 16-20 eta 21-30 urte bitartekoak. 2.300 euro saritan. Epea: urtarrilak 29

26 BARIXAKUA

20:00 "ENKARTELADA"

Plaza Handian

Iñazio Iriondo euskal presoaren 20. urteurrena kartzelan dela-eta

Antolatzailea: Elgoibarko Amnistiaren

Aldeko Mugimendua

22:15 IÑAKI LABAKA

KANTAUTOREAREN

KONTZERTUA

Iñazio Iriondo euskal presoaren 20. urteurrena kartzelan dela-eta

Herriko Antzokian

Antolatzailea: Elgoibarko Amnistiaren

Aldeko Mugimendua

27 ZAPATUA

11:00 HAURREN JAIALDIA

Plaza Handian

Antolatzailea: Errotatxo

11:00 EHNA ATERATZEKO

MAHAIK

Plaza Handian

13:00 "INAZIO ETXERA"

MANIFESTAZIOA

Irteera: Plaza Handitik

14:30 BAZKARIA

BERTSOLARIEKIN

Kimetzen

Antolatzailea: Elgoibarko Amnistiaren

Aldeko Mugimendua

17:00 KINA BEREZIA

Jubilatuen Biltokian

19:00 ERROTATXO ELKARTEAREN

ARGAZKI ERAKUSKETAREN

INAUGURAZIOA

Kultur Etxeko sotoan

Abenduaren 5era arte

Antolatzailea: Errotatxo Elkartea



28 DOMEKIA

13:00 HIESAZ HILDAKOEI

OMENALDIA

Plaza Handian

Antolatzailea: Errotatxo Elkartea

16:30 ANTZERKIA

Izenburua: Pulgarcita (erderaz)

Taldea: "Theatre Licem u Lice" konpainia (Kroaziakoa)

Herriko Antzokian



18:00 DANTZALDIA

GELATXOREKIN

Jubilatuen Biltokian

30 MARTITZENA

19:30 HITZALDIA

Gaia: Drogomenpekotasuna: zer da kanabis-a, droga ezberdinak, efektuak, e.a. (gurasoei zuzendua)

Hizlaria: Aitor Alkorta

Kultur Etxeko Hitzaldi gelan

Antolatzailea: Errotatxo Elkartea

1 EGUAZTENA

11:00 MAHAI INFORMATIBOAK

HIESaren Nazioarteko Eguna

King Kong inguruan

Antolatzailea: Errotatxo

20:00 KONTZENTRAZIOA

HIESaren Nazioarteko Eguna

Plaza Handian

Antolatzailea: Errotatxo

2 EGUENA

19:00 HITZALDIA

Gaia: "Zein da hizkuntza eskubideen egoera osasun zentroetan"

Kultur Etxean

Antolatzailea: Einbiou

3 BARIXAKUA

22:15 ANTZERKIA

Antzezlanak: "Zapaldu marra"

Taldea: Pikor Teatro

Herriko Antzokian

Errotatxo Elkartarekin elkarlanean



19:00 TORIBIOREN ESKULTURA

ERAKUSKETAREN

INAUGURAZIOA

Kultur Etxeko erakusketa gelan

Abenduaren 12ra arte

HITZALDIAK

Hizkuntza Eskubideak

“Zein da hizkuntza eskubideen egoera osasun zentroetan?” izenburupean hitzaldia antolatu du Einbiou Herri Plataformak. Datorren egunean, abenduaren 2an, izango da Kultur Etxean, 19:00etatik aurrera. Izenburuko galdera erantzuten saiatuko diren hizlariak honakoak dira: Paul Bilbao (Hizkuntza Eskubideen Behatokiko Zuzendaria); Josu Arrieta (LAB-Osakidetza); Unai Larreategi (Euskal Herrian Euskaraz). Bestalde, “Euskal Herrian Euskaraz” elkarteak euskal herritarren hizkuntza eskubideak jasoz argitaratu duen “Bideak: euskaldunon eskuliburua” doan banatuko dute agertzen diren artean.

IKASTAROAK

Masaje ikastaroak

Surya belar-dendak masaje ikastaro berri bat eskainiko du azaroaren 27tik aurrera. Zapatuero izango da, 10 gutzira, 10:00etatik 12:30era. Oinarrizko ikastaroa izango da eta masaje teknika ezberdinak irakatsiko dira. Informazio gehiago jaso edo izena emateko 943 74 25 34 telefonora deitu.

ANTZERKIA

“Pulgarcita”

Kroaziako Split hiriko “Face to Face” antzerki taldeak “Pulgarcita” antzezlanaz taularatuko du domeka honetan, azaroaren 28an, Herriko Antzokian. Emanaldia erdaraz izango da eta 16:30ean hasiko da. Antzerki eta artearen zaletu talde bat 1988an elkartu zen Kroazian antzerki modernoaren eta beste arte eszenikoenganako jarrera amankomun baten inguruan. Honen ondorio bezala, hasiera eman zionak, kemen gehiena duenak eta gaia hobekien ezagutzen duenak, Tako Glavinak, Licem u Lice (Aurrez aurre) izeneko antzerkia ezarri zuen. Urteotako lanaren emaitza ikusi ahal izango dugu Elgoibarren.

“Cocidito Madrileño”

Glu Glu Produzioak antzerki taldeak “Cocidito Madrileño” antzezlanaz eskainiko du urtarrilaren 14an Herriko Antzokian. Ikuskizun arrakastatsu hau ikusteko sarrerak aurrez salduko dira Kultur Etxean. Jadanik salgai daude eta 8,50 euroren truke eskuratu daiteke sarrera bakoitza goizez Kultur Etxera hurbilduz gero.

ELGOIBAR, Herriko Antzokian

“El Rey Arturo”

27, zapatua: 19:30-22:15

28, domekia: 19:30-22:15

29, astelehena: 22:15

EIBAR, Unzaga

“Los Increíbles”

26, barixakua: 19:30-22:15

27, zapatua: 17:00-19:30-22:30

28, domekia: 17:00-19:30-22:30

29, astelehena: 19:30-22:15

30, martitzena: 19:30-22:15

1, eguaztena: 19:30-22:15

EIBAR, Rialto

“Resident Evil 2”

26, barixakua: 19:30-22:15

27, zapatua: 17:00-19:30-22:30

28, domekia: 17:00-19:30-22:30

29, astelehena: 19:30-22:15

30, martitzena: 19:30-22:15

1, eguaztena: 19:30-22:15

BARRENEK ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketan erantzukizunik.



“El Rey Arturo”

Zuzendaria: Antoine Fuqua.

Antzezleak: Clive Owen, Keira Knightley, Stellan Skarsgard.

Arturo erregearen istorioa mito bat besterik ez zela izan defendatu dute urte luzez historialariek, baina legendak hezur-haragizko heroian du jatorria. Arturok Bretainatik alde egin eta Erromako egonkortasunean babes hartzea beste gauzarik ez du buruan. Bere eta mahai biribileko zaldunen ametsak eta asmoak zapuztuta geratuko dira, ordea, Erromako Inperioa erortzean. Bretainak errege bat behar duela ondorioztatuko dute, garai berrietan gidatuko dituen lider bat eta Sajoi inbasiotik defendatuko dituen, alegia.

ZINEA



A

ste honetako erretratu zaharra **Iciar Riaño**k laga digu. Argazkia 1948. urte ingurukoa da, eta Santa Ana kalean aterata dago, Riaño familia bizi zen etxepean, hain zuzen ere. Erretratuan ikusten den autoa, Sigma enpresako autoa zen. Iciar Riañoen aita Sigma enpresako txoferra zen garai hartan, eta berak erabiltzen zuen autoa. Gogora ditzagun zein diren argazkian ikusten ditugun neskatila hauek:
Iciar Riaño (atzean), **Cocnchi Riaño** (ezkerrekoa) eta **Nieves Iriondo** (eskuinekoa).



I. URTEURRENA

2003ko azaroaren 23an, 48 urte zituela hil zen
JULIAN ZUBIAURRE CELAYAren oroimenez
URTEURRENEKO MEZA izango da
larunbata, hilak 27, arratsaldeko 19:00etan Parrokian.
Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



I. URTEURRENA

JULIAN ZUBIAURRE CELAYA
Begian malkoa, eskuan lorea
bihotzean samina, gogoan zure maitasuna

Zure lagunak





“Behin batean... Gabonak”

Idazlehiaketa
2004

Lanak jasotzeko epea
ABENDUAREN 3an
amaitzen da.

Informazio gehiago: **943 74 16 26** (Aiora)

ANTOLATZAILIAK:



LAGUNTZAILIAK:



ZEZEN-BIDE

AUTO ESKOLA



Kotxerako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

San Frantzisko, 43 - 1. solairua

Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR

Ego Gain, 4 behea

(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR

ZAPALDU MARRA ARRA



ANTZERKIA (Euskaraz)

Zapaldu marra proposamen dibertigarria eta freskoa da, norberaren ardura eta zentzu kritikoa drogamenpekotasunaren prebentziorako politika eraginkor baterantz bidaratzea helburu duena.

**Abenduak 3,
ostirala
22:15ean
Herriko Antzokian**



THEATRE LICEM U LICE CROACIA
Nazioarteko Txontxongilo Jaialdia

"Pulgarcita" (Erdaraz)

**Azaroak 28, igandea
16:30ean
Herriko Antzokian**



KULTURA SAILA



FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA



Arrotatxo



SAREA